

*‘Arabar Errioxa zure kabuz’ eta ‘Arabar Errioxako Usainak eta Paisaiak’,  
Ibilbideko autobusaren bi proposamen berriak*

## **ENOBUS 2010, ARABAR ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA EGITEKO MODURIK HOBERENA**

*Bisitariari eskualdeko erakargarritasunak ezagutzea ahalbidetzen dio, modu antolatuan edo irekian egiteko hainbat ibilbideren bitartez*

Norberaren ibilgailua gidatzearen eragozpenak alde batera utzita eta gida-zerbitzu biribilaz eta ordutegi-malgutasunaz baliatuz, **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea** bus enoturistikoarekin, **Enobus 2010**, bisitatzea, bertako upeltegiak, udalerriak eta ostalaritza-establezimenduak bisitatzeko modurik eroso eta errazena da, loturarik gabe edo bisita gidatuak barne hartuta bidaiatzea ahalbidetzen duten bi programa berriei esker.

Bidaia eskualdetik bertatik eta baita Bilbo edo Gasteiztik ere antolatzea ahalbidetzen duen, eta herri biak Arabar Errioxako hiribururekin, Laguardiarekin, lotuko dituen bus turistikoa. **Ibilbidean** zehar egingo den bidaia Laguardian hasten da. Bisitariak, gainera, txartela prezio onean erosi ahal izango du baimendutako zentroren batean, bai eta Enobusetik nahi bestetan edo gustuko dituen lekuen arabera igo eta jaitsi ere. Honela, udalerriak, jatetxeak, tabernak, upeltegiak eta dendak aukeratu ahal izango ditu.

Ardoaren Ibilbidea bere kabuz egitea nahiago duen bidaiariarentzat, **Enobus 2010** delakoak ‘*Arabar Errioxa zure kabuz*’ izeneko programa antolatu du, interes enoturistikoko puntuak inolako loturarik gabe bisitatu ahal izateko. Autobusean bertan behar beste informazio guztia dago entzutezko giden sistema biribil bati esker. Informazio hori lau hizkuntzatan dago.

Bestalde, ‘*Arabar Errioxako Usainak eta Paisaiak*’ izeneko programa antolatu da, bisita-programa bat gida turistikoa batez lagundurik egin nahi dutenentzat. Honen bitartez, hainbat udalerrri eta upeltegi bisitatzeko dira informazio eta plangintzarik onenaz baliatuz, eta aisialdiaz gozatzeko ez ezik, upeltegi batean ardoa dastatzeko aukera ere ematen du.

Txartelak honako hauetan eros daitezke: *Laguardia, Bastida* edo *Eltziegoko* Turismo Bulegoetan, **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbideari** atxikitako ostatu eta establezimendu ezberdinetan, udaletan, zerbitzuaren enpresa emakidadunean (Hnos. Arriaga Autobusak) eta **Enobusean** bertan.

15 udalerrri (*Mainueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreta, Navaridas, Oion, Samaniego, Eskuernaga eta Ekora*), 4 Administrazio Batzar (*Gorrebusto, Labraza, Paganos eta Gatzaga Buradon*) eta turismo eta enologiaren sektoreko enpresak ordezkatzeko dituzte **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbideak**; izan ere, 106 bazkide ditu.

**Informazioa: 902 11 40 50.**  
**[www.rutadelvinoderiojaalavesa.com](http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com)**